

## Xedea

Dokumentu honetan inbertsio produktu honi buruz ezagutu beharko zenukeen oinarrizko informazioa aurkituko duzu. Ez da material komertziala. Legeak ezartzen duen informazioa da, produktu honen izaera, arriskuak, kostuak eta irabazia zein galera potentzialak ulertzen laguntzeko eta beste produktu batzuekin partekatzen laguntzeko.

## Produktua

<b>Produktuaren izena:</b>	Euribor3M 11/2025 gordailua
<b>PRII Paren sortzailearen izena:</b>	Banco de Sabadell, S.A.
<b>ISIN:</b>	Ez dagokio. Barne-identifikatzailea NOE 31875
<b>PRII Paren sortzailearen webgunea:</b>	<a href="https://www.bancsabadell.com/cs/Satellite/SabAtl/Documentacion-PRII/2000025609204/es/">https://www.bancsabadell.com/cs/Satellite/SabAtl/Documentacion-PRII/2000025609204/es/</a>
<b>Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu telefono zenbaki hauetara:</b>	963 085 000; Espainia kanpotik deitzen baduzu: +34 935 916 360
<b>Agintari eskuduna:</b>	Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala Banco de Sabadell S.A.-ren ikuskapenaren arduraduna da, oinarrizko datuen dokumentu honi dagokionez.
<b>Oinarrizko datuen dokumentua egin den data:</b>	2023ko irriaren 11

**Erostera zoazen produktua ez da erraza. Zaila izan daiteke ulertzea.**

## Zer da produktu hau?

### Mota

Gordailu Egituratu

### Epea

Produktuaren epemuga 2025eko azaroaren 13a da.

### Xedeak

Produktuaren xedea azpiko baten edo batzuen jokoerari lotutako finantza-tresna batean inbertitzea da, errentagarritasuna lortzeko. Jarraian aipatzen diren zenbatekoak zuk inbertitutako Zenbateko Nominal bakoitzari dagozkio. Kalkulu-agenteak zehaztuko ditu zenbatekoak.

### Azpikoak

Errendimendua Euribor 3 Month (Bloomberg-EUR003M Index)-erreferentziatuta dago.

### Nola zehazten da etekina?

- Behaketa-data bakoitzean, Azpikoaren Maila % 2,75aren berdina edo handiagoa bada, Zenbateko Nominalaren gaineko % 3,50eko kupoia jasoko duzu dagokion likidazio-datan. Bestela, Zenbateko Nominalaren gaineko % 1,80eko kupoia jasoko duzu.
- Epemugan, Zenbateko Nominala berreskuratuko duzu.

### Oinarrizko datak eta datuak

- Kalkulu-agentea: Banco de Sabadell, S.A.
- Gutxieneko Zenbateko Nominala: 1.000 euro
- Jaulkipen-data: 2023-eko azaroaren 13
- Iraungitze-data: 2025-eko azaroaren 13
- Azpikoaren Maila: Euribor3M-aren fixing-a (ACT/360) goizeko 11:00etan (Bruselako ordua) Behaketa Data bakoitzean.
- Kupoia Behaketa Datak: 2024ko azaroaren 11 eta 2025eko azaroaren 11
- Likidazio-datak: 2024ko azaroaren 13 eta 2025eko azaroaren 13. Asteburua edo jaieguna izango balitz, Modified Following arauari jarraituko zaio

## Zein txikizkako inbertitzailei dago zuzenduta?

Funtsean hauei zuzendutako produktua: Produktuan edo antzeko produktuetan alde aurreko ezagutza- edo esperientzia-maila ertaina duen edozein bezerori, galerak bere gain hartzeko gaitasunik gabe, eta bere arrisku-profila <<arrisku txikia>> bada. Era berean, xede-bezeroen inbertsio-helburuak produktuaren epemugarekin koherentea den inbertsio-epari lotuta egongo dira, eragiketaren helburua kapitala babestea izango da, eta zerbitzua honelakoa izango da: egikaritze hutseko zerbitzua (txikizkako bezeroak izan ezik), komenentzia-testa duen egikaritze hutseko zerbitzua, aholkularitza independentekoa, aholkularitza ez-independentekoa eta zorroen kudeaketa diskrezionaleko zerbitzua.

# Zein arrisku ditut eta zer lor dezaket horren truk?

## Arriskuaren adierazlea

Arriskurik txikiena

1

2

3

4

5

6

7

Arriskurik handiena



**Arriskuen adierazleak produktua 2025eko azaroaren 13ra arte edukiko duzula ulertzen du. Ezingo duzu aldeztu aurretik utzi.**

Arriskuaren adierazle laburtua beste produktuekiko produktu honen arrisku maila alderatzen duen gida da. Produktuak merkatuen eboluzioaren ondorioz edo guk ordaindu ezin dugulako dirua galtzeko aukerak bistaritzen ditu. Produktua 2 arrisku-motaren arabera sailkatu dugu 7ra arteko eskalan, non 2 <<arrisku txikia>> den. Horretarako, bi elementu hartzen dira kontuan: 1) merkatuaren arriskua (azpikoaren hegazkortasun arriskua eta interes tasaren arriskua): etorkizuneko jokabidearen ondorioz gerta daitezkeen galerak arriskua txikiko gisa sailkatzea; eta 2) kreditu-arriskua eta merkatuaren egoera txarrak Bankuak zuri ordaintzeko duen ahalmenean eragina izateko probabilitatea oso txikia izatea. Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak berregituratzeko eta suntsiarazteko Europako 2014/59/EB Zuzentaraua aplikatuz, ebazpen-agintariek birkapitalizatu beharreko finantza-tresnak beste balore batzuetan amortizatzea eta/edo bihurtzea edo jaulkitzailearen aktiboak eta/edo negozio-unitateak transmititzea erabakitzeak arriskua. Kapitalaren % 100 edo gehiago berreskuratzeko eskubidea du. Zenbateko horren gaiterik dagoen kantitate oro, eta etekin osagarri oro, merkatuaren etorkizuneko eboluzioaren mende daude, eta ez dira ziurrak. Ezingo bagenizu zor dizuguna ordaindu, inbertsio osoa gal zenezake. Hala ere, kontsumitzailearen babes-arabidea izan dezakezu (ikus iturri hau: «Zer gertatzen da ezin badizugu ordaindu»). Aurreko adierazleak ez du babes hori kontuan hartzen.

## Errentagarritasun-egoerak

**Produktu honetatik lortzen duzuna merkatuak etorkizunean izango duen bilakaeraren arabera izango da. Eboluzio hori zalantzakoa da eta ezin da zehatz-mehatz aurreikusi. Erakusten diren egoerak iraganeko emaitzetan eta hipotesi jakin batzuetan oinarritutako irudiak dira. Merkatuek oso bestelako bilakaera izan lezakete etorkizunean.**

**Gomendatutako mantentze-aldia:**

2 urte

**Inbertsio-adibidea:**

10.000 euro

**Urte 1 igaro ondoren ateraz gero**

**Urte 2 igaro ondoren ateraz gero**

**Egoerak**

<b>Gutxienekoa</b>	<b>10.360 EUR. Etekina bermatuta egongo da baldin eta produktua epemugara arte (2025eko azaroaren 13) mantentzen baduzu.</b>		
<b>Tentsioduna</b>	<b>Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena</b>	9.974 euro	10.360 euro
	<b>Urteko batez besteko etekina</b>	-% 0,26	% 1,78
<b>Kontrakoa</b>	<b>Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena</b>	10.377 euro	10.700 euro
	<b>Urteko batez besteko etekina</b>	% 3,77	% 3,44
<b>Neurrizkoa</b>	<b>Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena</b>	10.377 euro	10.700 euro
	<b>Urteko batez besteko etekina</b>	% 3,77	% 3,44
<b>Aldekoa</b>	<b>Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena</b>	10.377 euro	10.700 euro
	<b>Urteko batez besteko etekina</b>	% 3,77	% 3,44

Egoerek (aldekoa, neurritzkoa, kontrakoa eta tentsioduna) emaitza posibleak irudikatzen dituzte; eta (gehienez ere) azken bost urteetan izandako erreferentziako azpiko(ar)en iraganeko errentagarritasunak erabiliz egindako simulazioetan oinarrituta kalkulatu dira. Aurkeztutako zifrek produktuaren kostu guztiak hartzen dituzte, baita zure aholkulariaren edo banatzailearen kostuak ere. Zifrek ez dute kontuan hartzen zure zerga egoera pertsonala, zeinak eragina izan dezakeen jasoko duzun zenbatekoan. Tentsiodun egoerak erakusten du merkatuen muturreko egoeretan zer jaso zenezakeen.

## Zer gertatuko litzateke Banco de Sabadell, S.A.-k ordaindu ezingo balu?

Banco Sabadellek ezin badizu ordaindu Kreditu Erakundearen Gordailuak Bermatzeko Funtsak ([www.fgd.es](http://www.fgd.es)) bermatzen dizu sartutako itzuliko dizula, 100.000 euro arte (edo haren kontrabaliao eurotan, gordailuak beste dibisa batean egin badira), gordailugile eta kreditu-erakunde bakoitzeko. Kontuan hartu Banco Sabadellek, kreditu-erakundea den heinean, Banco Sabadell, SabadellUrquijo eta Activobank markak dituela, eta zuk kreditu-erakunde berean gordailu bat baino gehiago badituzu, zenbatekoak batuko direla eta 100.000 euroko muga hori izango dutela erakundeko. Bestalde, beste pertsona batzuekin badituzu kontuak, 100.000 euroko muga gordailugile bakoitzari aplikatu zaio. Dena den, sozietate, elkarte edo antzeko erakunde bateko bazkide edo kideak izateagatik bi pertsonak edo gehiagok badituzte eskubideak kontuan, gordailuak gehituko dira, eta titular batek bakarrik egin dituela hartuko da. Berme hori kontuko saldoetan eta diruzko gordailuetan bakarrik aplikatzen da, bai sinpleetan, bai egituratuatan. Horrenbestez, beste produktu batzuk ez dira barne hartuko, eta dagokien itzultze arabidea izango dute.

## Zein dira kostuak?

Hurrengo tauletan adierazitako kostua aldatu egin daiteke merkatuko mugimenduak direla eta. Merkaturatze aldian, Oinarritzko Datuen Dokumentua kontsulta dezakezu, zeina eguneratuta dagoen Banco Sabadellen webgune publikoan edo BS Online-n, bezeroaren posizio-kontuan.

### Kostuak denboran zehar

Hainbat kostu-mota estaltzeko zure inbertsioetik kendutako zenbatekoak erakusten dituzte koadroek. Zenbateko horiek honako hauen arabera dira: zenbat inbertitzen duzun, produktua zenbat denboraz mantentzen duzun eta produktuaren emaitzak zenbateraino diren onak. Hemen adierazitako zenbatekoek zenbat inbertsio-alditan zenbateko jakin baten inbertsioaren adibide bat erakusten dute.

Honako kasu hauek izan ditugu abiapuntu:

- Lehen urtean inbertitutako zenbatekoa berreskuratuko zenuke (% 0ko urteko etekina). Gainerako mantentze-aldiei dagokienez, suposatuz dugu produktuak neurritzko egoerak erakusten duen bezala eboluzionatu duela.
- 10.000 EUR inbertitzen dira.

	Urte 1 igaro ondoren ateraz gero	Urte 2 igaro ondoren ateraz gero
<b>Kostu osoak</b>	270 euro	270 euro
<b>Kostuen urteko eragina (*)</b>	% 2,8	% 1,4 urte bakoitzean

(\*) Kostuek mantentze-aldian urtero etekina zenbat murrizten duten adierazten du. Adibidez, erakusten du, gomendatutako mantentze-aldiaren amaieran ateraz gero, urte bakoitzean lortuko den aurreikusitako batez besteko etekina % 4,87koa izango dela kostuak kendu aurretik, eta % 3,44koa kostuak kendu ondoren.

## Kostuen osaera

<b>Sarrerako edo irteerako kostu bakarrak</b>		Urte 1 igaro ondoren ateraz gero
<b>Sarrera-kostuak</b>	Inbertsio hori egitean ordainduko duzun zenbatekoaren % 2,70. Kostu horiek dagoeneko sartuta daude ordaintzen duzun prezioan. Ez da banaketa-kosturik aplikatuko.	270 euro
<b>Irteera kostuak</b>	Ez dugu irteera kosturik aplikatzen produktu honetarako, baldin eta gomendatutako mantentze-aldian ateratzen bazara.	0 euro
<b>Urtero kendutako kostu arruntak</b>		
<b>Kudeaketa-komisioak eta beste administrazio- edo funtzionamendu-kostu batzuk</b>	Zure inbertsioaren balioaren % 0,00 urtean. Azken urteko kostu errealetan oinarritutako zenbatespen bat da.	0 euro
<b>Eragiketa-kostuak</b>	Zure inbertsioaren balioaren % 0,00 urtean. Produktuaren azpiko inbertsioak erosi eta saltzean sortzen ditugun kostuen zenbatespen bat da. Zenbateko erreala erosi eta saltzen dugun kopuruaren arabera aldatuko da.	0 euro
<b>Baldintza espezifikoetan kendutako kostu osagarriak</b>		
<b>Etekin-komisioak (eta kontuko partaidetzak)</b>	Produktu honi ez zaio inolako etekin-komisiorik aplikatzen.	0 euro

## Zenbat denboraz eduki behar dut inbertsioa, eta dirua lehenago atera dezaket?

Gomendatutako mantentze-aldia: 2 urte

Gomendatutako mantentze-aldia produktuaren iraungitze datari dagokio. Arren, kontuan izan produktua iraungitze-dataren aurretik balio gabetzea ez dagoela baimenduta, likideziaz ez duelako.

## Nola erreklama dezaket?

Produktu honen edo jasotako zerbitzuaren inguruan kezarik edo erreklamaziorik aurkeztu nahi baduzu, Bezeroen Arreta Zerbitzuarekin jar zaitezke harremanetan, <https://www.bancsabadell.com> guneko harremanetarako formularioaren bitartez edota postaz, hurrengo helbidean: Bezeroen Arreta Zerbitzua - Banco Sabadell Gunea, Can Sant Joan industrialdea. Calle Sena, 12, 08174 Sant Cugat del Vallès edota posta elektronikoz bidez, hurrengo helbidean: [SAC@bancsabadell.com](mailto:SAC@bancsabadell.com), baliabide honen erabilera 59/2003 Legearen arabera denean, abenduaren 19koa, sinadura elektronikokoa. BAZari erreklamatu ondoren, badago BMNBari erreklamatzeko aukera.

## Beste datu interesgarri batzuk

Dokumentu honen osagarri gisa, kontratuaren aurreko informazio Fitxa ere emango dizugu. Fitxa horretan, produktu honi buruzko informazioa jasotzen da, Espainiako Bankuaren ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularren baldintzen arabera. KID honetan egin daitekeen ekintza oro Banco Sabadell web orrian edo BS Online webgunean egongo da eskuragarri, bezeroaren posizioko kontuan.